

## PRENTSA OHARRA

### I+G Espainia hidrogeno berdearen arloan Europako buruan jartzeko

- *Tekniker zentro teknologikoa H-LEAF proiektuan parte hartzen ari da, trantsizio energetiko autonomoagoa, seguruagoa eta ingurumena errespetatzen duena sustatzen duten abangoardiako teknologiak sortzeko.*
- *CDTIk finantzaturako ekimenak elektrolizagailu-prototipo berritzaile bat eskainiko du hidrogenoaren ekoizpen eraginkor eta ekonomikoa lortzeko*

[Eibarren, 2024ko urriaren 8an] Europako Itun Berdeak neutraltasun klimatikoa lortu nahi du Europan 2050erako, Europar Batasuneko ekonomia eredu jasangarri bihurtuz, erregai fosilak ordezkatzeko dituzten energia berriztagarriak erabiliz.

Trantsizio energetikoak sektore giltzarri gisa hartzen du hidrogeno berdea bultzatzea, horretarako erronka handiei aurre egin behar bazaie ere bere kostu handiagatik eta heldutasun teknologiko mugatuagatik. I+Gn inbertitzea funtsezkoa da oztopo horiek gainditzeko eta energia-sistema iraunkor eta garbi baterantz joateko.

Erronka horri erantzuteko, **Tekniker** zentro teknologikoa, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea, H-LEAF proiektuan parte hartzen ari da, hidrogeno berde eraginkor, ekonomiko eta jasangarria sortzea eta hidrogeno berdea goi-presioan konprimitzea ahalbidetuko duten teknologia aurreratuak ikertzeko eta garatzeko, hura biltegitratzeko beharrezkoa baita.

Abangoardiako osagai eta prozesuen bidez, ekimenak Espainiaren gaitasunak indartu nahi ditu trantsizio energetiko autonomoagoa, seguruagoa eta ingurumenarekiko begirunetsuagoa gauzatzen laguntzeko.

Proiektuko I+G lanaren emaitza gisa, Proton Exchange Membrane (PEM) teknologian oinarritutako elektrolizagailu-prototipo berritzaile bat sortzea espero da, hidrogenoaren

ekoizpena erraztuko duena eta konpresore eraginkor eta seguruaren diseinu berri bat egingo duena, hidrogenoarekin goi-presioetan lan egiteko espezifikoak.

## Zati kritikoen estaldurak

Ekimenean zehar, Tekniker arduratuko da elektrolizagailuaren hainbat osagai kritikotarako (plaka bipolarrak, esaterako) estaldura aurreratuek ikertzeaz eta garatzeaz, funtsezkoak baitira oxigeno- eta hidrogeno-molekuletan ura eraginkortasunez bereizteko.

"PVD estaldurak garatuko ditugu, material aurreratuko geruza fin bat aplikatuz elektrolizagailuaren plaka bipolarretan. Horretarako, hainbat teknika erabiliko ditugu, esaterako, 3D inprimaketa titanio hauts birziklatuarekin eta altzairu herdoilgaitz estanpatuarekin, piezak iraunkorragoak eta eraginkorragoak izan daitezen eta ekoizpen-kostuak murrizteko", azaldu du Eva Gutiérrez Teknikerreko Plasma bidezko Estaldura Teknologien unitateko zuzendariak.

Era berean, zentroak estaldura espezifikoak garatuko ditu konpresore berriaren atal guztietarako, iraunkortasuna handitzeko eta sistemaren ihesak murrizteko. Horrela, goi-presioetan lan egin ahal izango du (400-500 bar), ezinbestekoa sortutako hidrogeno berdea biltegitatu eta garraiatu ahal izateko.

Aldi berean, Teknikerreko taldeak material horiek hidrogenoarekin kontaktuan eta marruskadurapean duten portaera aztertuko du, higadurarekiko erresistentzia, ihesak saihesteko iragazkortasuna eta hauskortasuna ebaluatzeko eta haien bizitza baliagarria kalkulatzeko.

Horrela, 2026ko abendura arte luzatuko den, CDTIk finantzatuta dagoen eta TRANSMISIONES 2023 programaren bidez Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak babesten duen H-LEAF proiektuak, energia garbi eta berriztagarri baterako trantsizioa erraztea eta tokiko industria teknologikoa indartzea izango du xede.

Partzuergoan, aipatutako Tekniker zentro teknologikoaz gain, Estatuko erreferentziazko industria-agentek daude, hala nola Impressions Rotatives Offset S.A.; Brendle Metalquímica S.A.; Industrias de Estampación del Corte Fino S.L.; Vilaseca Consultors S.L.P.; The Lean Hydrogen Company S.L.; Arizaga, Bastarrica y CIA; Jorcar 2009 S.L.; eta Fundació Eurecat.

## Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago izateko:

**GUK** ▶ Unai Macias

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) | Tel. 690 212 067

Esta publicación es parte del proyecto de I+D+i PLEC2023-010219, financiado por MICIU/AEI/10.13039/501100011033 y según proceda: “FEDER una manera de hacer Europa”, “FEDER/UE” o por la “Unión Europea NextGeneratioEU/PRTR”.